



AMATASUNA  
eta  
AITATASUNA

**Jaiotze eta erditzearen prestaketa  
Haurtxoentzako masajea**

# Hernanik kronika.net



Osteguna, 2012/02/02

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

## AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data  
2012  
otsaila  
1

## BILATU

Kronika Zaharrak

## ARGITARATZAILEA



## LAGUNTZAILEAK



## KRONIKA.NET



JOXE LASARTE - LARRE-GAIN

## «Saiatzen gara mantentzen, garai bateko sagardoak; betikoa»

**Aurten sagardo eginagoak bilatuko ditu bezeroak, txotx denboraldiaren hasieratik, baita Larre-Gainen ere. Sagardo politak daudela dio Joxe Lasartek, eta txotxerako prest daudela, urtero bezala. Krisiak sortzen duen kezka puntuarekin, baina betiko bezeroekin konfiantzaz, hala ekingo diote aurtengo denboraldiari. Aurten ere, autobusean joateko aukera dauka Larre-Gainek, eta bezeroek bereziki estimatuko dituzte: sagardoaz gain, bakailoa tomatearekin famosoa, etxeko giro gozoa, eta paisaje paregabea.**

2012/01/22 - Igandea

larre-gain sagardotegiak sagardo berezia egiten du, eta hori badakite betiko bezeroek. garai bateko sagardoak, beti-betikoa bilatzen dute larre-gainen, gusto berrietara pittin bat egokitua, eta xuabeagoa. hortik abiatuta, dena zaintzen dute larre-gainen: lekua, paregabea; jeneroa, zaindua; eta tratua, etxekoa.

### sagardo egin xamarra, denboraldi hasieran

egin xamarra daude sagardoak, aurten, denboraldia hastear dela. sagarrak azkar hartu du heldu-puntua, eta urri bukaera alderako jo dute sagardotegiek, ia dena. «sagar urte ona izan da aurtengoa ere», dio lasartek. «azken urteak onak izan dira hemen, inguruan. sagastiak gehiago kontrolatzen dira, eta horrek ere izango du eragina. tolosa bitartean sagar dezente izan da aurten; goierrin ez dute halako zortzerik izan, iaz ez bezala». sagarrak sagarrari eragiten, eta aurten mikatz puntua hartua dute sagardoek, dagoeneko. hala ere, etxe bakoitzak bere sagardo-tipoa egiteko arazorik ez omen da izaten. «guk gure sagardoak bilatzen dugu, eta sagarra hasieratik kontrolatuz gero, lortu liteke norberak nahi duen horretara inguratzea. sagardoak trasegatzen dira, batetik bestera, eta gazia gezagoarekin nahastu liteke, nahi dena hura lortzeko. teknika berriek ere laguntzen dute, eta erabiltzeko daude».

### analisiak, hasieratik

sagardoak kontrolatzeko modu bat da, hasieratik analisiak egitea. larre-gainek ere badu bere teknikoak, eta horrez gain, fraisoro laborategia ere horretarako dago, lasartek dioenez. «fraisoro hor egoteak badu bere garrantzia. kostua du horrek,

## BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

## BILATU

## GAURKO KRONIKA



## ARGAZKIAK



## DIKUSI



AÑARBE -  
UHOLDEETAKO  
TXOSTENA

BEHOBIA-DONOSTIA  
Hernaniarren  
saillkapena

BEHOBIA-DONOSTIA




---

## BESTE HEDABIDEAK TOKIKOM

**ANBOTO:**  
Elorriokoren erreakzioa  
etxetik kanpora

**GOIENA:**  
Iñaki Perurena: "Azken  
urteotako apustua harria  
jasoaz zahartzea dut"

**AIURRI:**  
Elurteetarako jarduera  
protokoloa indarrean jarri du  
Urnietako Udalak

---

## DOBERA BLOGAK

**ZUBIETA-SOS:**  
Azpeitia Zero Zabor:  
Azpeitiko egungo zabor  
bilketa sistemak aldaketa  
sakona behar du

**ZUBIETA-SOS:**  
Auzitegi Gorenak ere  
errauskailua kolokan jarri  
duela dio Usurbilgo Udalak  
(+ Urtarrileko albisteak)

---

baina nahi dena analizatzeko bide bat da, interesgarria. teknikoek ere laguntzen dute. hor, berebiziko garrantzia du kontrola eramateak, lehendabiziko mostotik, azkeneko emaitza bitarte.»

### **betebeharrak, denentzat**

merkatuak baditu bere esijentziak. etiketa jartzeko, sagardo batek parametro jakin batzuk bete behar izaten ditu, eta hor denek pasa behar dituzte kontrolak. «besteek bezala, larre-gainek ere betebeharrak baditu, legea betetzeko, eta parametro horietan sartzen gara. gero, kalitatezkoa den edo ez, bezeroek esaten dute». bezeroekin gustora krisi hotsak iritsi dira sagardotegietara ere, eta bildur puntu bat denek daukate, nola joango ote den denboraldia. dena dela, bezeroek ondo erantzuten dutela dio lasartek, larre-gainen kasuan. «betiko bezeroekin lan handia egiten dugu larre-gainen, eta oso ondo erantzun dute, azken urteetan; bai txobxean, eta bai botila salmentan». etxetik saltzen dute gehienbat botilakoa, eta inguruan. «denda eta taberna pare batean ere jarri dugu, baina gehiena bertan saltzen da, larre-gainen».

### **botila bezala, txotxa ere behar**

txotxerako toki paregabea da larre-gain. dagoeneko zabaldu dituzte ateak, eta irekita izango dute maiatzaren 6ra arte. txotx denboraldiak badu bere garrantzia, larre-gain sagardotegian. «biak behar ditugu guk, botila eta txotxa». asteartetik ostegunera afariak ematen dituzte; ostiral eta larunbatetan bazkariak eta afariak; eta igandean bazkariak. astelehenetan itxita egongo da.

### **antxoillekin hasi, bakailotik segi, eta txuleta, bukatzeko**

mokadu goxoak jartzen dituzte larre-gainen. mokofinenek badakite, hasi eta buka, gustora egingo dituztela bertan. bertako produktua ibiltzen dute gehiena (haragia ez beste), eta badituzte bereizgarri batzuk. «betiko menua daukagu, baina plater bereziak baditugu, bakailoa tomatearekin, adibidez. hori menuan dago aukeran; menuetik kanpora, enkarguz eskatuz gero, bakailoa saltsan jartzen dugu. eta hori bai, hasteko, besteetan txorixoarekin bezala, larre-gainen antxoillekin hasten gara».

### **autobus zerbitzua**

garaiak aldatzen ari dira, eta gero eta gehiago dira sagardotegira kotxean joan nahi ez dutenak. horretarako, autobusa jarriko dute aurten ere larre-gain sagardotegira, hernanitik joan-etorria egiteko.

### **«zer ikusi handia du sagarra zaintzeak, biltzen den garaitik, jotzen den arte»**

joxe lasartek dio, bertako sagarra zaintzea errazagoa dela, eta beraiek bertako sagarra darabilkitela urtero, ia dena.

«bertako sagarrarekin betetzen dugu bodega, urtero. batzuetan, kanpotik pixka bat ekarri behar izaten da, baina oso gutxi. aurten %90 bertako sagarra ibili dugu, eta %10 kanpokoa». bertako sagarra ibiltzeak badu bere garrantzia, joxe lasartek dioenez, bertako baserritarrekin lan egiteagatik, eta, kontrolatzea errazagoa delako, hasieratik bukaerara. hurrengo apustua, etxean bertan sagasti gehiago jartzea dute, larre-gainen.

sagarra da sagardoaren funtsa. eta bigarrena ona nahi bada, lehenengoa ezin deskuidatu, noski. lasarte iritzi horretakoa da. «zer ikusi handia du sagarra zaintzeak, biltzen den garaitik jotzen den arte. guk etxeko sagarra eta inguruetakoa ibiltzen dugu, eta badakigu zer daukagun, urtero. hernani, andoain... gipuzakoako sagarra darabilkigu. badakigu nola dagoen sagasti bakoitza, eta beraz, zenbat izango dugun bakoitzetik: gazia, geza, gozoa, mikatza...». sagar urterik onenetan ere, larre-gainek sagar guztia hartzen die konpromisozko baserritarrei.

«konpromisoa hartua daukagu bertako sagar-zaleekin, eta haiena bukatu arte, ez dugu kanpotik ekartzen. urterik onenetan, gure bodega beteagatik, kilo bat sagar bildu gabe ez da geratzen. gero, kanpora saldu behar izaten da sagar hori, batzuetan».

### **sagar-ondo zaharrak kendu, eta berriak aldatu**

etxeko sagarra ere ibiltzen du larre-gainek. «sagarrondo zaharrak kendu eta berriak jartzen ari gara. sagastia mantentzeak dezenteko lana du, eta egoki jarri behar dira. horretan ari gara gu, eta horretan segiko dugu pixkanaka, ahal dugun neurrian».

yy



Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)